

BALAIKE

UKA



CARMELO AMAS

**IZURDEAREN
OROIMENA**



Casa
BASUSTA



*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Santiago auzoa, 18 | 943-86 26 11 | www.floristeriabasusta.com |   



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

**10€
DOAN
GRATIS**



ZUMAIA TXARTELA

**Eskatu zure txartela
eta gozatu abantailez!**



GERTU

ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA

EPEA:
2023/06/30 edo izakinak agortu arte.

Zumaia Udalak



**ZUMAIA
BIZITZEKO
DA**





BALEIKE 331

2023-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Korapiloa Jabi Gonzalez Toston
<i>Azkenaren bi aldeak</i> | 24 | Guka, parean eta pareko Juan
Luis Romatet
<i>Mugarik ezagutzen ez duen
harribitxia</i> |
| 6 | Hitz tantak Intza Trula
<i>Nagore Sanchez eta Intza Martin:
"Elektrotzaranga osatzeko ideia hor
zegoen aspalditik, fundamente pixka
bat jartzea bakarrik falta zitzaigun"</i> | 32 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Nire haurrak antsietatea du?</i> |
| 8 | Hainbat aburu Arroa Beheko
Ezkaizto Auzo Elkarte
<i>Herriak lotu, bidegorria amaitu</i> | 34 | Plazan bazan |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Aranzadi eta memoria</i> | 37 | Guka gura! |
| 10 | Elkarriketa Aitor Manterola
Gararte
<i>Carmelo Amas: "Bihotzean daukat
Zumaia"</i> | 39 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel
Carballo Ostolaza
<i>Eskolan</i> |
| 18 | Klik! Jabi Gonzalez Toston
<i>Oporraldi iniziatikoa</i> | 44 | Izpiak eta hizkiak Fernando
Martin
<i>Skyline</i> |
| | | 46 | Literatura Antton Peñalba
<i>Hiltzaile baten aitormena</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus

Erredaktore taldea

Jabi Gonzalez Toston
Onintza Lete Arrieta
Intza Trula

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K

PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

☎ 679 10 31 67
📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa • Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa • Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika • Motorren mekanika
Piztea • Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 • Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, inglés, alemán, español, catalán, sueco, húngaro, portugués, griego, italiano, japonés, coreano, chino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino.

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Miki Gormendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivinet.com
www.basadidivinet.com

Goleze: 11-13 / Arribakale: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 • Etkez etxeo zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73
943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Azkenaren bi aldeak



JABI GONZALEZ TOSTON

Saharako errefuxiatuen kanpalekuak ezagutzeko eta, bide batez, 2012tik nuen arantza kentzeko zortea izan dut Aste Santuan. DBH4ko ikaslea nintzela egin behar nuen lehenengo bisita, baina abiatu bezperan apendizitisa atzeman zidaten, eta horrek bidaia zapuztu zidan. Patuak, ordea, ematen ditu bigarren aukerak tarteka, eta halaxe egokitu zait niri oraingoan. Oparia nori eskertu ere badut, Darahli elkarteak osatzen duen talde osoari eta proiektuaren arima den Samuel Ruizi, hain zuzen ere; zeren, bera gabe, ezinezkoa bailitzateke bidaia seigarrenez egitea.

Aldi berean, aitortu behar dut, ordea, tristea ere badela 11 urte igaro ondoren kanpalekuetara joateko aukera berriro sortu izana sahararrek basamortuaren erdian ahaztuta jarraitzen dutelako. Hala ere, badirudi aurten egindako seigarren ikasle bidaia izan litekeela azkena, baina ez duela ia 50 urte oztu zizkieten lurretara itzuliko direlako. Ruizi azken hilabeteotan entzun diodanaren arabera, beharrezkoa da hari erreleboa hartuko dion beste talde bat osatzea. Orain arte, Zumaiaiko Herri Eskolako irakaslea zenez, ikastetxe barrutik aritu da bultzaka Ruiz, baina behin erretiroa hartuta, guztiz ulergarria da aldendu eta antolaketaren ardura beste batzuen esku utzi nahi izatea. Horrez gain, aintzat hartu behar da aurreko bidaietan laguntzaile izan duen Ibon Ibargurennek oraingoan ez duela parte hartu, eta are nekezagoa izan dela lana.

Hori horrela, uste dut herriko bi ikastetxeek nahiz Zugeko Dairarekin senidetuta dagoen Zumaiaiko Udalak ahalegina egin beharko luketela proiektuari eusteko. Elkarrekin betiere, orain arte bezala; zeren eta, pena litzateke hain aberatsa eta hezitzailea den proiektua galtzea. Azken finean, teoria barneratzeko eraginkorrena praktika izan ohi da, eta horixe da ekimen honek eskaintzen diena parte hartzeko zortea dutenei: lehen eskutik ezagutu dute euren egunerokotik aldentzen den errealitatea eta elkarlanaren indarra.

Azken hari horri tiraka, hain justu, iruditzen zait saharar errefuxiatuak ezagutzeko aukera izan dugun guztioi ere badagokigula Ruizek abiatutako proiektua bultzatzen jarraitzea beste batzuek guk izan dugun zorte bera izan dezaten. Taldean arituta saihestu egingo da gutxi batzuek erantzukizun osoa hartu behar izatea. Gainera, ez zait esker ona adierazteko modu hoberik bururatzen bizi izan dugunak balio izan digula uste badugu. Tindufeko kanpalekuetako seigarren ikasle bidaia azkena bada, sahararrak etxera itzuli direlako izan dadila. Tamalez, ez du itxurarik hala izango denik. ■■■

**DARAHLIKO SEIGARREN
IKASLE BIDAIA AZKENA
BADA, SAHARARRAK
ETXERA ITZULI
DIRELAKO IZAN DADILA**

Nagore Sanchez eta Intza Martin: "Elektrotzaranga osatzeko ideia hor zegoen aspalditik, fundamentu pixka bat jartzea bakarrik falta zitzaigun"

TESTUA: INTZA TRULA

ARGAZKIA: MARIA MAYA MANTEROLA

Nagore Sanchez (Zumaia, 2001) eta Intza Martin (Zumaia, 2003) duela gutxi sortu den Hamarru elektrotzarangako bi taldekide dira. Musikaren munduan oso murgilduta daude bi gazteak, eta Hamarru proiektuaren parte izateaz gain, Zumaia Musika Bandako partaide ere badira.

Nola sortu zen taldea osatzearen ideia?

Intza Martin: Elektrotzaranga sortzeko ideia Manu Blancorena izan zen; aspalditik zeukan hori buruan, lagunen artean komentatzen zuen beti. Urrian elektrotzaranga baten kontzertua egon zen Zumaian, eta emanaldiaren erdian Manuren mezu bat jaso nuen: "Intza, elektrotzaranga bat sortuko dugu, animatzen zara?". Nire erantzuna baiezkoa izan zen segituan.

Nagore Sanchez: Momentu hartan bertan erakutsi zidan Intzak Manuren mezua, eta pentsatu ere egin gabe, nik ere baiezkoa eman nien. Gogoan dut duela urtebete santelmoetan honen inguruan hitz egin nuela Manurekin, baina nik uste nuen, beti bezala, ezerezean geldituko zela guztia, eta ez genuela aurrera eramango proiektua. Ideia hor zegoen aspalditik, fundamentu pixka bat jartzea bakarrik falta zitzaigun.

I.M.: Momentu horretan taldekideak bildu genituen, eta bi aste epea jarri genion geure buruari martxan jartzeko.

Nondik dator taldearen izena?

I.M.: Unai Sasiain taldekideak proposatu zuen Hamarru izena. Aspalditik zeukan izen hori buruan, eta taldekide guztioi gustatu zitzaigun aurkeztu zuenean.

N.S.: Zumaian karramarroa *hamarra* izenez ezagutzen da, eta horri *olagarro* hitza gehitzen badiozu, *Hamarru* hitza ateratzen zaizu.

I.M.: Horrez aparte, marrua egitea. Beraz, esanahi pila bat ditu atzean taldearen izenak.

Zumaian egin zenuten debuta, eta harrera oso beroa izan zenuten.

I.M.: Sekulakoa izan zen. Jende pila bat gerturatu zen gu ikustera, eta talde guztia oso eskertuta

dago jasotako babesagatik. Giro ezin hobea izan genuen, eta egun oso polita izan zen.

N.S.: Gu oso gustura egon ginen, eta kanpoko jendeak ere hori helarazi digu. Azken finean, hori da guretzat garrantzitsua; bertaratzen direnak gustura egotea eta ondo pasatzea.

Nola antolatzen zarete entseatzeko?

I.M.: Lokala oso txikia da, eta gu asko gara. Ahal dugun moduan egiten dugu, igande arratsaldeetan biltzen gara normalean, posible dugunok azaltzen gara, eta kito.

Zertan oinarritzen zarete abestiak aukeratzeko orduan?

N.S.: Zerrenda asko dauzkagu gustuko ditugun abestiz osatuta. Hasieran proposamen guztiak bildu genituen lista batean, ondoren batzuk aukeratu genituen, eta horiekin beste bat sortu genuen, *ikasteko* zerrenda izango litzatekeena. Amaitzeko, jotzen ditugun abestien zerrenda bat egin genuen, ofiziala, nolabait esateko.

I.M.: Jotzen ditugun kanta guztiak ez dira euskaldunak, baina lehentasuna daukate euskal kantei. Hasieratik hitz egin genuen taldean euskarazko abestiak joko genituela.

Taldearen abestirik gustukoena?

I.M.: *Rukula* abestia bai ala bai jo behar dugun horietako bat da, zalantzarik gabe; azkena jotzen duguna, taldekide batzuen gustukoena da. Baina, orokorrean, talde osoaren kantarik gogokoena *Kukutza* edo *EH Sukarra* dira.

Datozen hilabeteetarako kontzertu asko dituzue hitzartuta?

I.M.: Proposamen pila bat iritsi zaizkigu, ez genuen espero oraintxe hasi eta hainbeste proposamen jasotzea. Elektrotzarangak modan daude orain, eta eskari handia dago. Ahal ditugun kontzertuak eskainiko ditugu, baina lasai hartu nahi dugu. Hala ere, esan beharra daukat talde osoa oso gogotsu dagoela, eta kontzertuak ematen jarraitzeko irrikaz gaudela.

N.S.: Kontzertu batzuk hitzartu ditugu jada, baina gehienbat epe motzerakoak. Oraintxe hasi gara, eta ez dugu epe luzerako ezer hitzartu nahi. ■



Herriak lotu, bidegorria amaitu

Arroa Beheko herritarrek nazkatuta gaude informazio faltaz eta Bidegorriko lanen atzerapenez. Bai Narrondorekin (Zumaia aldera) eta bai Iraetarekin (Zestoa) lotuko litzuketzen zatiak egiteko izaten ari diren atzerapenez nazkatuta, alegia.

Gogoan izan behar da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plana onartzen duen ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua 2013. urtean onartu zutela Batzar Nagusiek. Helburua hauxe zen: plan horretako 5. ibilbideari (Urola Bailara) jarraipena ematea, Zumarraga eta Zumaia arteko bide osoa lotu eta amaituz.

Arroa Beheko bizilagunen aldarrikapen historikoa izan da "herriak lotu, bidegorria amaitu", hau da, Narrondo auzoarekin (1.000 metro

inguru) eta Iraeta auzoarekin duen lotura egitea.

Bi zatiak elkartuz gero abantaila handiak izango genituzke bailarako biztanle guztiok: alde batetik, aisialdirako aukera bat sortuko litzateke bizilagunentzat, eta, bestetik, Arroako auzotarrok autoarekiko dugun mendekotasuna murriztuko litzateke Zumaiara eta Zestoara joateko orduan.

Azken urteotan, hainbat komunikabidetan iragarri digute laster egingo direla bi zatietako lanak: Arroa-Narrondo zatia egitea eta Iraeta eta Arroa Behea artean eroritako bi tunelak egokitzea.

2019ko otsailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuaren eta orduko Zestoako alkatearen prentsaurrekoan, Iraetako

tunela egokitze lanen berri eman zen (240.000 euro). Eta urte horretan bertan, 2019. urtean, Arroako tunelari buruzko azterlana ere egingo zela (60.000 euro). Halaber, Arroa-Narrondo zatia egingo zela ere iragarri zuten, 530.000 euroko zuzkidura batekin.

Hau horrela izango zelakoan, 2020an Zestoako Udalak bere eskuduntzan zegoen zatiaren lanak egiteari heldu zion. Arroa Behea eta Urolako Bide Berdea izango zenaren arteko loturari, hain zuzen ere. Udalak bere lanak amaitu zituen, baina lan horiek ez zuten Bide Berdearen lanen jarraipenik izan.

Berrikiago, 2022ko otsailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak jakinarazi zigun Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) bidez, Iraeta eta Arroako tunelak

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Aranzadi eta memoria

Foro Sozial Iraunkorrek martxoan bukatutzat jo zuen bere ibilbidea, bere lana hiru bloke handitara bideratu ostean; oraindik ere osatzeko dauden hiru bloke: presoen afera, biktimen egiarako eskubidea eta memoria kritiko eta inklusiboa.

Inork ez du zalantzan jartzen azken urteetan urrats handiak egin direla. Presoei dagokienez, Euskal Herriko espetxeetan daude gehienak. Biktimen alorrean, Kriminologiaren Euskal Institutuak lehen hurbilketa bat egin du Hego Euskal Herrian pairatutako tortura kasuen inguruan. Falta denaren adibide dira, berriz, Auzitegi Nazionalak hirugarren graduari jarritako oztopoak zein Espainiako Barne Ministerioak Mikel Zabalzaren torturen eta heriotzaren arduradunak saritzea.

Memoriaren arloan dagoen kontakizunaren batailaren erakusle da Aranzadi zientzia elkartearen aurkako oldarraldia; hauteskunde (aurre)kanpaina betean. Baina, ezinbestekoak dira elkarte hark erabilitako bi premisa: 1) "Giza eskubideen urraketek" zein "bukaera traumatikodun" bestelako gertaerek euren lekua izan behar dute, bereiztuta bada ere, eta 2) ezin dira "giza eskubideen beste urraketa batzuk edo beste edozein aitzakia erabili" indarkeria motaren bat justifikatzeko. ■

egonkortzeko lanak diseinatu, lizitatu eta egingo dituela; Foru Aldundiak, berriz, 2023aren hasieran hasiko zituela Narrondorekin lotzeko lanak, 450.000 euroko aurrekontuarekin. 2023ko urtean bete-betean gaude, eta oraindik lanen arrastorik ez!

Iazko uztailean ETSk lizitaziora atera zuen bere gain hartutako lana (Iraetako eta Arroako tunelak birgaitzeko eta sendotzeko proiektua idaztea), baina ez dugu horri buruzko informazio gehiagorik. Nola ote daude kontu horiek?

Aldundiak hartutako konpromisoei dagokienez, ez dakigu aurrerapenak izan diren, baina badakigu 2023 ere aurrera doala, eta oraindik ez direla obrak hasi.

Arroa Beheko Auzo Elkarateak galdetu izan duenean, Foru

Aldundiaren erantzuna hau izan da: "Aurrekontu nahikorik ez aurreikusitako inbertsioetarako". Baina gure ustez arazoa beste bat da: borondate politikorik eza. Izan ere, hainbat urtez egon da dirua aurrekontuetan gordeta, baina ez da erabili, borondate faltagatik, eta jakina, diru horiek "galdu" egin dira.

Urte asko igaro dira, gehiegi, eta askotan esan zaigu: "Lasai, laster egingo da", askotan entzun ditugu hitz politikak, baina nekatuta eta nazkatuta gaude. Baita alderdien joko politikoekin ere. Izan ere, herritar guztion interesen gainera jartzen dituzte beren interesak, eta behin baino gehiagotan sentitu izan gara pieza hutsak haien xake jokoetan. Pazientzia handia erakutsi dugu, baina amaitzen ari zaigu. ■

PUBLIKO BATERA PASEATZERA JOAN ETA
K GABE GERATZEN
NEKOA



"Bihotzean daukat Zumaia"

CARMELO AMAS FUTBOLARI OHIA

Goi mailako futbolaria izan zen zumaiaarra 1961etik 1976ra, Realean, Espanyolen, eta berriz ere Realean. Alfredo Di Stefano taldekide izan zuen, eta 'Pele'-ren eta Johan Cruyffen kontra jokatu zuen (horrek kamiseta eman zion gero). Entrenatzaile izan zen ondoren, hogeita sei urtez Realeko gazte mailako taldean; sei hilabetez lehen taldea ere zuzendu zuen.

Testua: **Aitor Manterola Garate**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.

Haize lekua da Zumaia, eta gogor ari da astintzen Erribera kaleko ertz batean, Mari estatuaren azpian. Auto askoren artean, batek Txomin Agirre moilan aparkatu du. Handik atera dira Carmelo

Amas (Zumaia, 1943) eta Maria Pilar Etxarri emaztea. Amas futbolaria eta entrenatzaile ohia ilusioz itzuli da jaioterrira, bisitan sarri samar etortzen den bakoitzean bezala. Pozik da herrian, eta ez du ezkutatzen poz hori. Jaioterria eta futbola hizpide hartuta, haurtzaroko kontuekin hasi da solasaldia, Aita Mari futbol zelaitik gertu. **Zumaiaarra jaio zinen, baina segituan joan zineten Lasarte-Oriara bizitzera.**

Hori da. Bederatzi hilabete baino ez nituen hemen-dik joan ginenean. Mari kalekoa naiz. Sei anai-arreba ginen, baina bat txikia zela hil zen, eta beste bat istripuz, 23 urterekin.

Zertan egiten zuen lan aitak?

Itsasontzietako mekanikoa zen, eta Yereguirenean egin zuen lan. Gero, Lasarten, autobusetako mekaniko hasi zen.

Ama ere zumaiaarra, baina Asturias aldekoa jatorriz.

Bai, aita zuen asturiarra, Mendez abizenarekin.

Zumaiaitik oso txikitan joan arren, eta bizimodua hemendik kanpo eginagatik ere, zumaiaartzat daukazu zeure burua. Harro esaten duzu, gainera.

Bai horixe. Beti esaten dut zumaiaarra naizela. Bihotzean daramat.

Joan, joan zinen, baina betiko ez, ezta?

Ez, ez. Amama Pepa bizi izan zen bitartean udatan etortzen ginen. Orain Aita Mari elkarte dagoen gainean bizi zen. Haurtzaroko lagunak hemen ere egin nituen, eta bat Pedro Mari Garate *Altzola* da [Amas agurtzera azaldu da elkarriketako hitzordura]. Osaba bera genuen, geure artean senideak izan ez arren.


Zer egiten zenuen hemen udan?

Etxekoekin egon, eta jolastu. Joanito Zearretak bizikleta tailerra zeukan, eta hark lagatzen zizkigun bizikletekin ibiltzen ginen hara eta hona. Senide asko nituen hemen, eta bazen norekin egon. Neguan ere etortzen ginen batzuetan.

Ezinbesteko beste hitzordu batzuk ere ba omen zenituen herrira itzultzeko: Telmo Deunen banderak ospatzeko errezibimenduak.

Telmo Deuneko jarraitzailea naiz, eta irabazten zuen urteetan pentsa zer zen niretzat, zumaiaarra





Mari kalean jaio zen Carmelo Amas. Martxoan egin zitzaion elkarrizketan bisitatu zuen jaiotetxea.

izanda. 1980ko hamarkadan asko irabazi zuen, eta igandero ez ginen etortzen, baina jarraipen handia egiten nion traineruari. Lasarten banuen lagun bat Zumaian arraun egindakoa. Badugu bitxikeria bat bilobarekin: oriotarra da, gure semea hara joan zelako bizitzera, eta hemengo errezibimiendu batean, biloba "Aupa Orio!" oihuka hasi ez zitzaigun ba! [barrezka]. Guk isiltzeko esaten genion.

Orain ere tarteka etortzen zara herrira.

Bai. Olarro Egun batean ere egondakoak gara. Edozein unetan etortzen gara, buelta bat ematera. Eta hemendik pasatzen bagara beste nonbaitera goazelako edo nonbaitetik gatozelako, sartu-irtena egiten dugu herrian.

Asko aldatu da, bada, Zumaia.

Polita beti izan da, baina orain beste gauza bat da. Lehen alde zaharra bakarrik zen, eta orain begira noraino zabaldu den. Lehen trenean etorri, eta geltokitik asko ibili behar zen herrigunera iristeko, bidean ez zegoelako ezer.

Futbolaren aitzakian ere egin omen zizuten herrian omenaldi bat.

Elkarte batetik deitu zidaten, eta *bazkaripaxa* egin genuen.

Futboleko oso ezaguna izan arren, zumaiaarra zarela ez daki jende askok. Zergatik?

Elkarrizketa batean azaldu zen arte Zumaian jaiotakoa nintzela, ez zen asko jakin. Lasartekoa nintzela jartzen zidaten kroniketan-eta, eta beti esaten nien kazetariari ezetz, zumaiaarra naizela. Berriki Mixel Gonzalez kazetariak idatzi du sare sozialetan nire izenean ate bat dagoela Espanyolen zelaian, eta hura ere senide zumaiaarrak dituen izanik, Mitxelen bitartez ere jakin da Zumaiaakoa naizela, horrela idatzi duelako.

Ume-umetatik hasi zinen futboleko jokatzeko?

Bai. Baloia, baloia eta baloia. Besterik ez nuen orduan. Jolastu eta jolastu ibiltzen nintzen. Eskolatik irten, eta ez zen besterik Lasarten. Eskolako lanak egin, eta kalera, futboleko jokatzera.

Kaletik hondartzara gero?

Hori da. Donostiako Jesuitak eskolarekin jokatu nuen hondartzan, Kontxan. 13 eta 14 urterekin jokatu nuen. Hortik Añorgara joan nintzen, 15 urte nituenean.

Bila joan zitzaizkizun?

Ondo jokatzeko nuen. Aurrelaria nintzen, eta gol asko sartzen nituen. Fitxatu nahi ninduten. Hondartzan nenbilela, beste talde batek ere nahi



Carmelo Amas, Bartzelonako Espanyolen aritu zenean.

**"LASARTEKOA NINTZELA JARTZEN
ZIDATEN KRONIKETAN ETA BETI
ESATEN NIEN ZUMAIARRA NAIZELA"**

**"REALAK DIRUA BEHAR ZUEN ETA
SALDU EGIN NINDUEN ORDUKO
MILIOI ETA ERDI PEZETAREN TRUKE"**

**"ELIKADURA ERE ALDATU DA. BESTE
ABIADURA BATEKIN JOKATZEN DA
ORAIN, ERRITMOA BIZIAGOA DA"**

izan ninduen: Anoetak. Fitxatu ninduten, baina arazo bat tarteko, taldea desagertu egin zen. Oraingo Lengokoak da hau, eta tartean Deportes Elizondo ere izan zuen izena. Kontua da Gipuzkoako bi onenak Añorga eta hauek zirela. Libre geratu nintzen. Lagun batzuk neuzkan Añorgan jokatzeko, eta joateko eskatu zidaten. Horrela joan ginen sei bat lagun. Jubeniletan jokatu nuen han.

Debuteko partida gogoan al duzu?

Gipuzkoako Kopan izan zen, Hernaniren kontra. Itzulikoan jokatu nuen, eta 0-3 irabazi genuen. Hiru golak neuk sartu nituen. Finala jokatu genuen gero Ilintxaren aurka, eta 1-4 irabazi. 15 urte neuzkan orduan. Gero, Nazional Ligako taldean jokatu nuen jubeniletako aldia bukatu artean.

Hiru gol sartzeagatik orduan ere baloia ematen zitzaion golegileari, orain bezala?

Bai zera! Baloirik ez zen egoten ia-ia, eta zeudenak sakratuak ziren.

Nolakoa zen orduan futbola? Entrenatzeko lekuak, zelaia, entrenamenduak, materiala...

Entrenamenduak baino gehiago partidak jokatzeko genituen. Lasarten, adibidez, hoguei bat lagun batzen ginen hipodromoan, eta jokatu egiten genuen. Gero, Añorgan, entrenatzen hasi ginen Javier Expositorekin, astean hiru bider. Odururako agintea nork zeukan ondo zehazten zuen Javierrek. Belarretako zelaia zen Añorgakoa, eta eguraldi ona zenean, bertan entrenatzen genuen. Bestela, pilotalekura. Materialari dagokionez, Javier oso zorrotza zen botekin. Ondo-ondo zainduta eduki behar genituen, eta astean behin begiratzen zigun. Txabola bat genuen ate baten atzean, gauzak gordetzeko. Harrapatzen zuena botak zaindu gabe, lasterka jartzen zuen. Horrela behar zuen. Konpromisoa erabatekoa zen orduan. Orain, eskiatzera joaten dira gazteak denboraldi erdian partida eta taldea utzita. Orduan, pentsaezina zen hori egitea.

Nolako giroa egoten zen zelaietan?

Gerra giroa [barrezka]. Besterik ez zegoen. Gipuzkoan barrena jokatzeko genuen Añorgarekin hango nire lehen urtean, eta Arrasateraino joaten ginen. Hangoentzat hiriburuko taldea ginen gu, eta partida batean, 3-0 galtzen ari ginen lehen zatian. Burla egiten ziguten bertakoek, ea gu ginen Donostiako talde onena esanez. Gero, bigarren zatian buelta eman genion emaitzari, eta 3-6 irabazi genien. Eibarrera, Bergarara, Tolosara, Ordiziara eta abar joaten ginen. Oso oroitzapen

onak dauzkat Añorgako urteez. Iribarren aurka ere jokatu genuen, Zarautzen kontra, eta zazpi gol sartu genizkion. Orduan ez zuten deitzen Gipuzkoako selekziora atezain joateko, pentsa. Atezainetako bat Matias Gorrotxategi zen selekzioan, Tolosako Casa Julian jatetxekoa, eta harro esaten du Iribarren aurretik ibili zela selekzioan.

Eta Realaz azaldu zitzaizun gero.

Bai, baina lehenago ere fitxatu nahi izan ninduen, Añorgan nenbilela. Baina hauek ezezkoa. Jubeniletako aldia bukatu, eta Realera joan nintzen, Sansera. Orduan Bigarren Mailan zegoen (orduan ez zen Bigarren B Mailarik). 18 urte bete berriak nituen.

Beste maila bat izateaz gain, bidaiak-eta luzeagoak izango ziren, ezta?

Bigarren Maila bi multzotan banatua zegoen: Iparraldekoa Galizian hasten zen, eta Katalunian bukatu; Hegoaldekoa beste guztia zen. Autobusez ibiltzen ginen. Igandean jokatzeko ostiraletan ateratzen ginen batzuetan. Pentsa Vigora (Galizia) joateko nola ibiltzen ginen. Zatika egiten genuen bidea, gaua bidean eginda, eta azkenekoa osatzeko, Ourensetik Vigorainokoa, hiru ordu behar izaten genituen. Errepideak al ziren ba haiek!

Zer egiten zenuten autobusean?

Irratiko musika entzun, baina ez zen orain bezala. Bestela, kartetan jokatzeko genuen, mahai bat bazuela-eta autobusak.

Beste abentura bat hasi zenuen orduan, eliteko futboleant. Erabat ezberdina?

Bai. Aurreneko denboraldian, Sanserekin, hirugarren edo laugarren izan ginen, baina mailaz jaitsi behar izan genuen, Realak ez ziolako eutsi Lehen Mailan jokatzeari. Hurrengo denboraldian, talde erdia baino gehiago lehen taldera igo gintuzten, Realera.

Zenbat denboraldi egin zenituen Realean lehendabiziko aldian?

Hiru. Ez genuen Lehen Mailara igotzea lortu.

Eta Espanyol azaldu zitzaizun gero.

Realak dirua behar zuen, eta saldu egin ninduen, garai hartako milioi eta erdi pezetaren truke. Dirua zen orduan. Urtero saltzen zuen Realak garai hartan. Lehendabiziko salmenta Arakistain atezainarena izan zen, eta haren atzetik joan zen Olano aurrelaria Murtziara. Gero ni izan nintzen.

Nola gauzatzen ziren fitxaketak orduan?

Espanyolek ni nahi ninduen, eta Realak saltzeko beharra zeukanez, bi klubetan artean adostasuna

egin zuten. Ondoren, niregana etorri ziren, joan nahi nuen galdetzeraz, eta fitxa adostera.

Baiezkoa erraz esan zenuen?

Bai. Lehen Mailan jokatzeko aukera ematen zidalako batetik, eta diru gehiago irabaziko nuelako, bestetik. Han joan nintzen, eta zazpi denboraldi egin nituen bertan. Neskalaguna hemen geratu zen, eta hirugarren urtera ezkondu ginen, eta elkarrekin ginen berriaz.

Zer aurkitu zenuen Bartzelonan?

Esperientzia handiko jokalariz osatutako taldea zen Espanyol, eta horietako asko fitxatutakoak ziren, gainera. Bat Sevillatik, pare bat Valladolidetik, beste bat Atletico Madriletik, eta horrela. Di Stefano ere taldean zen, eta denboraldi batez jokatu nuen harekin.

Zer izan zen zuretzat Di Stefano bezalako izar handi bat taldekide izatea?

Denen idoloa zen orduan, munduko onena. Oraingo Messi zen. Alfredo jainkoa zen. Real Madrilekin dena irabazita zeukan, Europako Kopa hainbat bider, besteak beste.

Aldagelan aurreneko aldiz ikusi zenuenean, zer?

Errespetua nion, baina gero, ohitu egin nintzen. Izen handiko jokalariz asko zeuden han. Cayetano Re ere etorri zen, Marcial, Jose Maria, Claveria...

Jokalaria bakoitza bere etxean bizi zineten ala ez?

Ez. Egoitza edo erresidentzia antzeko bat zeukan Espanyolek, pentsio modukoa, ezkongabeak ginen jokalarientzat bakarrik. Han bizi ginen. Emakume batek egiten zigun jatekoa, arropak garbitu... Gero, ezkondu ginenean, etxe batera joan nintzen.

Espanyolen ere golak sartzen trebe ibili zinen?

Ez pentsa. Hegaletik jokatzeko nuen. Jubeniletan bakarrik jarri ninduten aurrelari. Hegaletatik zailagoa zen golak sartzea. Orduan, alboko marrari itsatsita jokatzeko genuen, eta ez orain bezala, barrura sartzen baitira. Bi aukera izaten genituen hegalekoek: erdiratu, edo buruz buruko jokaldia egin. Baina sartu nituen gol batzuk, hala ere.

Espanyolen bizi izandakoaren oroitzapen onena?

Garai oso ona izan zen. Hirugarren geratu ginen ligan, eta handia zen lorpena. Orduko aurrelari multzoa oso ezaguna izan zen: Re, Rodilla, Marcial, Jose Maria eta ni neu. Zaleek buruz zekizkiten gure izenak. *Bost izurdeak* deitzen ziguten.

Zergatik?

Azkarrek ginelako. Kazetari batek jarri zigun ezizena.



Carmelo Amas Aitor Manterola kazetariarekin Aita Mari futbol zelaian.

Zer da Espanyoleko jokalarizatea Bartzelonan, hirian Bartzelona Futbol Taldea egonda?

Bigarren mailakoa izatea. Bartzelona kluba da hiriko ikonoetako bat. Bartzelonako zaleak independentistak dira gehiago, baina Espanyoleko zaleen artean ere badaude. Gehiago dira, ordea, Espainiako etorkinak.

Espanyoloren estadioan (RCDE Stadium) sarrerako ate batek zure izena daramala aipatu duzu lehen. Nondik nora?

Zelai berria egin zutenean, ateei izena jartzea erabaki zuten, eta *Bost izurdeek* daukagu geurea. Bazkideen artean erabaki zuten. 20-30 bat ate izango ditu estadioak, bakoitza bere izenarekin. Espanyolen jokatu dugunak askoz ere gehiago gara, eta kontuan izanda klubik zaharrenetakoa dela, atera kontuak zenbat jokalariz ohi garen.

Zer sentitu zenuen horren berri eman zizutenean?

Ilusio handia egin zidan, hainbeste denbora pasatu eta gero oroitu zirelako. Poz handia eman zidan. Nirekin beti ondo portatu dira, eta klubaren efemeride garrantzitsuenetara gonbidatu egin naute beti. Gabonetan zoriondu ere eginen naute.

Bukatu zenuen Espanyoleko aroa, eta Realera itzuli zinen 1972an. Nola izan zen?

Kontratua bukatu nuen Espanyolen, eta Realak deitu zidan. Lehenengo Mailan zegoen orduan, eta lau denboraldi osatu nituen hemen. Europan ere jokatu genuen, Realaren historian aurreneko aldiz, 1974-75 denboraldian. Banik Ostravaren jokatu, eta galdu egin genuen kanporaketa. Hurrengo denboraldian berriz ginen Europan, eta Grasshopper taldea kanporatu genuen, baina

gero, astindua eman zigun Liverpoolek (1-9 izan zen kanporaketako emaitza). Horien kasuan, haiek jokatu zuten gurekin [barrezka]. Zeinen onak ziren! Toshackek jokatzeko zuen han [gero Realeko entrenatzaile izan zenak]. Denboraldi hartan UEFA Kopa irabazi zuten, eta hurrengoan hiru lehiaketa irabazi zituzten: liga, UEFA eta hango Superkopa. Kevin Keegan ere bazen talde hartan.

Zer da Anfield estadioan jokatzeko, Liverpooleko zelaian?

Sekulako astindua eman ziguten itzulikoan: 6-0. Ez genuen esperientziarik, eta Liverpool beste maila batean zegoen, beste mundu batekoa zen. Atotxan, joanekoan, 1-3 irabazi ziguten, eta neuk sartu nuen Realaren gola.

Europatik barrena ibili eta gero, futbola uzteko ordua heldu zitzaizun. Zuk utzi zenuen, ala utzi egin behar izan zenuen?

Neuk utzi nuen. Konturatu nintzen garaia nuela lagatzeko. Pentsa, liga irabazi zuen Realeko hainbat jokalarik jokatu zuten nirekin: Arkonadak, Kortabarriak, Olaizolak, Zamorak, Idigorasek, Satrustegik, eta azkeneko nire urtean Lopez Ufartek ere bai. Zubi lana egin genuen guk gure taldearen eta gero txapeldunena izango zenaren artean.

Antzematen zenien gazte haiei bazutela zerbait berezia?

Bai. Batzuei besteei baino gehiago. Adibidez, Kortabarria erdiko atzelari oso ona zen. Roberto [Lopez Ufarte] etorri zenean ere, ezberdina zela ikusten zitzaion. Zamorak ere kalitate tekniko handia zeukan. Idigorasek eta Satrustegik indarra zeukaten.

Omenaldia-eta egingo zizkizuten, ezta?

Atotxan urrezko bularrekoa jarri zidaten aurreneko omenaldian, eta gero, bigarrenengoan, erloju hau oparitu zidaten, Espanyolen kontra jokatu ondoren [jantzita darama, eta idatzita dago *Carmelo Amasi, fidelitasunagatik, Real Sociedad*]. Ez dut kendu ere egiten. Espanyolek ere eman zidan urrezko bularrekoa, eta perikito bat ere bai.

Espainiako selekzioarekin ere jokatu zenuen, baina zorte txarra tarteko, ez zinen izan Munduko Kopan.

Deialdi batean izan nintzen, 1966ko Ingalaterrako Munduko Koparako. Valentzian jokatu genuen Iribarrek, Sanchisek, Zocok, Amancio Amarok, Ansolak... Oso ondo jokatu genuen Bordeleko Girondinsen aurka. Asteazken bat zen. Igandean Sevillan ginen jokatzekoak Espanyolekin, baina nik ezin, sukarrarekin hotelean geratu nintzelako. Amigdalak neuzkala esan zidan medikuak, eta

azkar egin behar zidatela ebakuntza. Hurrengo asteazkenean geneukan beste partida bat Espainiarekin, baina ez nintzen joan. Agur Munduko Kopa!

Futboleko jokatzeari utzi eta segituan, entrenatzaile hasi zinen. Nola izan zen?

Realeko jokalaria izatearekin batera, klubeko kadeteen taldeko entrenatzaile ere izan nintzen. Gero, gazteen mailako taldeen ardura eman zidaten jokatzeari utzi eta berehala, eta 26 urtez aritu nintzen lan horretan.

Realeko lehen taldeko entrenatzaile ere izan zinen une batean.

Bai. Sei hilabetez, Javier Expositorekin batera. Bartzelonaren zelaian Realak azkenekoz irabazi zuenean gu ginen entrenatzaile. Joan dira urte batzuk ordutik, 1990-91 denboraldian izan zelako hori. Real Madrili Madrilen, eta Valentziari Valentzian ere irabazi genien sei hilabetezko tarte hartan. Asmatu zituen hiru emaitza horiek Tarot egiten zuen batek [barrezka]. Taldea larri hartu genuen, eta erditik gora bukatu.

Esperientzia horren ondoren, berriz ere gazte mailako taldea zuzentzen hasi zinen.

Gu etxeko langileak ginen, eta lehen taldea eman zigutenerako, banekien gero lehengo lekura itzuliko nintzela.

Zure garaian, jokalaria asko lan munduan murgiltzen ziren futbola utzi eta gero. Orain, ez da ohikoa, ez bada entrenatzaile edo.

Futboleko irabazitakoarekin banekuan bizitzeko aukera, baina 35 urterekin ez nintzen hasiko ezer egin gabe bizitzen. Dirua inbertitzen zuten batzuek, eta gehienek zerbaiten ordezkaritza hartzen zuten, lanerako. Satrustegi ardotege baten ordezkari izan zen, Gorritz medikuntzako zerbaitetan ibili zen, eta horrela, asko eta asko. Ni banketxe batean hasi nintzen lanean.

Realeko gazteekin lan handia egin zenuen, eta emaitzei begiratuta, bitan irabazi zenuten Txapeldunen Kopa, 1998an eta 1999an.

Emaitzak oso onak izan ziren, baina pozik handiena da zenbat jokalaria on atera ziren talde horretatik. Pentsa zenbat jokalaria izan ditudan hogeita sei urtean: Fuentes, Loren, Pikabea, Aranzabal, Imaz, De Pedro, Etxeberria, Txiki Begiristian, Alkiza eta beste mordo bat.

Zer erakusten zenien gehienbat?

Borrokatzen ikastea oinarritzko gauzetako bat zen, futboleko jokatzeko erakustearekin batera. Lehiatu gabe jokatzeko ez zen onartzen. Irabaztera joaten

ginen, baina formazioaren oinarrian. Pertsona bezala hazten ere laguntzen genien.

Nolakoa zen orduan Zubieta? [1980an eraiki zuten, Amas entrenatzen hasi eta lau urtera].

Alderatzen hasita Athleticekin eta Lezamarekin, haiena beste gauza bat zen. Guk partidak jokatzeko zelairik ere ez geneukan-eta.

Gipuzkoako herrietan jokatzeko genituen etxeko partidak: Errenterian, Hondarribian, Tolosan, Lasarten, Oiartzunen... Entrenatu ere, ahal zen lekuan, Mundaizen, harritxintzarreko zelaian.

Denborarekin harrapatu egin genuen Athletic, eta gero aurreratu ere bai. Hobeto ibiltzen ginen gero.

Zer iritzi duzu gaur egungo futbolaz?

Ezberdintasuna prestaketa fisikoan dago.

Elikadura ere aldatu da. Beste abiadura batekin jokatzeko orain, erritmoa biziagoa da. Jokalari onak, bestelakoan, lehen ere bazeuden, eta orain ere badaude. Berdinuago dago orain lehiaketa, bizpahiru talde kenduta, onenak direnak, besteen artean parekotasun handia dago. Sistemei dagokionez, beti egon dira ezberdinak, eta orain ere bai. Ingalaterrako futbola miresten nuen, eta han beti 1-4-4-2 sistemarekin jokatzeko zen. Gazteen taldean,

beti jokatu izan dut bi aurrelarirekin; hiru erdiko atzelarirekin jokatzeko nuen askotan, eta aurrean beti bi jokalaririk zirela. Bakoitzak gustatzen zaion moduan jokatzeko du, edota jokalarien ezaugarrien arabera ere bai.

Kaleko futbola non galdu da?

Orain ez dago ia. Alde onak eta txarrak zituen.

Norberak atera behar zituen babak heltzetik kalean, ez zen leku asko egoten, eta adibidez, buruz buruko jokaldiak egiten ikasteko oso egokia zen. Baina kontrara, ezin zen lasterkada luzerik egin. Hori zegoen, eta horretara moldatu behar. Orain 11-12 urteko umeek zelaian jokatzeko dute, eta orduan, kalean. Gure garaian, gazte mailara heldu arte, ez ginen zelaian sartzen. Arkupeetan jokatzeko genuen, bi biren kontra-eta, txandaka.

Oraingo Realaz zer diozu?

Laino batean dago. 1960ko hamarkadan ezagutu genuenarekin alderatzen bada, gaua eta eguna bezalakoak dira ordukoa eta oraingoa, arlo guztietan, gainera. Ikusgarria da oraingoa. Begira nolako instalazioak dituen. Hartuko nituzkeen nire garaian gustura asko! Jokatzeko lehendabizi, eta entrenatzeko gero. ■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali maiztaren 22a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat.

Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Apirileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 16. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Yolanda Larios** bazkidea izan da irabazlea.





Oporraldi iniziatikoa

Nekez ahaztuko dute 2023ko Aste Santua lehen aldiz Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan izan diren zumaiarrek. Astebetez euren egunerokoarekin zerikusirik ez duen bizi eredu bat ezagutu dute. Kulturaz harago, etxetik kanporatu duten eta gerran dagoen herri baten errealitatea ezagutu dute.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Peio Romatet eta Jabi Gonzalez Toston**.



Ezustekoa

Zirrargarria izan da Zumaiako bi ikastetxeetako 40 ikaslek Zugera egin duten bidaia. Hasieratik bukaerara, gainera. Izan ere, joaneko hegaldian bertan hasi zen emozio zurrunbiloa. Ustekabeko galanta hartu zuten Barajasko (Madril, Espainia) aireportuan, aduanako polizia aurreko bost bidaietan behar izan ez zituzten baimenak eskatu zizkietenean. Estuak izan ziren lehenengo minutuak, gazteetako askok zekarten ilusioa amesgaizto bilakatu zelako une batetik bestera. Azkenean, ordea, guzti-guztiekin bidaiatu zuten, eta gozoa izan zen ametsa.



Bazterrean

Algeriak utzitako lurretan bizi dira Saharako errefuxiatuak. Basamortuaren erdian. Espaloirik gabeko kaleak dira hangoak, hondarra baino ez dago haimatik kanpo. Bada, haimak aipatuta, abandonatutako herri baten isla direla esan daiteke. Duela ia 50 urte iritsi zirenean, non babestu izateko eta etxera azkar itzuliko zirelakoan oihalezkoak eraikiko zituzten. Oraindik ikus daitezke batzuk. Gerora, adobezkoak; egitura indartsuagoak, baina ahulak, era berean. Desegin egiten dira euria egiten duenean. Orain, adreiluzkoak eraikitzen dituzte.



Taldea

Bidaiaren amaieran, ohitura izaten da bidaiaren parte hartu duen talde osoa borobilean biltzea kideetako bakoitzak bizitakoaren bere irakurketa egin dezan. Une berezienetakoa izan ohi da azken agurrarekin batera, eta halaxe izan da aurten ere. Zintzo jokatu dute guztiek, eta epaituak izateko beldurrik izan gabe, askatasun osoz adierazi dituzte euren sentimenduak; izan ere, guztiaren gainetik sekulako taldea osatu dute. Sahararrekin ez ezik, euren artean ere eraiki dituzte harremanak, elkar besarkatu dute. Horixe da Darahli, hain justu.



Elkartasuna

Ugari izan dira ikasleek Zugan egin dituzten lanak: haur eskola apaindu, Euskal Herrian bildutako laguntza (ekonomikoa, eskola materiala, jostailuak, sendagaiak...) banatu edota eskola egun bat dinamizatu, besteak beste. Horiek guztiak taldean egin dituzte eta elkarrekin gozatu dute. Azken finean, batera aritzearen edertasuna eta eraginkortasuna frogatu dituzte.

Hala ere, lagundu nahi hori behar bezala antolatzea ere garrantzitsua da. Horregatik, talde txikiagoetan banatuta egin dituzte aipatu jarduerak: dantza taldeak euskal folklore erakustaldia egin du; antzerki, eskola eta kirol taldeek eskolako saioa dinamizatu dute; eta pintura taldeak, haur eskolako muralak margotu ditu.



Kultura

Astebetez saharar artean bizi izan direnez, bestelako kultura bat ere besarkatu dute zumaiaarrek. Erlijio islamikoan berebiziko garrantzia duen Ramadanean egin dute egonaldia, gainera. Dena den, baraurik ez dute egin beharrik izan eguzkia jarrita zegoen bitartean. Horrez gain, tea gogotik edan dute eta bertako jantziak zein apaingarriak jarri dituzte. Azken horren erakusle da gehienak esku nahiz ile gorrixkarekin itzuli direla genaren ondorio.



Emakumeak

Erabaki ahalmen handia dute emakume sahararrek. Zugako dairako (Euskal Herrian udala litzatekeena) alkatea emakumea da, baita Auserd wilayako (probintzia) gobernadorea ere. Gainera, kontseilua ere emakumez osatuta dago batik bat. Halaber, gizon gutxi ikusi dituzte zumaiarrek: gazteak kanpoan lanean edo armadan dabiltza, eta nagusiagoak, aparte. Hori bai, agertzen direnean, haien presentziak errespetua sortzen du inguruan.

Desparekotasuna

Sahararrek 3 urtetik aurrera dute eskolara joateko aukera. Haur eskolara, lehendabizi, eta eskola arruntera, 7 urte betetakoan. 15 urte bete arte ikas dezakete kanpaleketan. Hortik aurrera, hezkuntza ziurtagiria lortzeko ikasten jarraitu nahi badute, Algeriara joan behar izaten dute beste hiru urtez. Askori, ordea, ezinezkoa zaie; zeren eta, ikasketak doakoak diren arren, egonaldiaren gastuak ordaindu egin behar dituzte. Errealitate horrek zer pentsatua eman die zumaiarrei, eurek erabakitzeko aukera baitute.





Bizipoza

Harrigarria eman dezakeen arren, irribarreak dira nagusi Tindufeko kanpalekuetan. Darahliren espedizioa iritsi zen une beretik Zugeko haurrak gainera bota zitzaizkien zumaiairei, besoetan hartzeko eskatzeko. Gainera, tartean baloiren bat bada, are ageriagoa da jolaserako gogo. Txikiek, nonahi jaioak direla ere, beti helarazi ohi dute alaitasun hori, bai; baina haimetan ere arnasten da gozatzeko gogo bera adinez nagusiagoak direnen partetik. Horren adibide da urteak bete zituen ikasleetako bati etxeko amak antolatu zion festa ederra. Oparoa izan zen edari nahiz janari aldetik, eta, halere, kezkatuta zegoen nahikoa ez zelakoan. Halaber, dantzatzeko eta abesteko joera handia dute sahararrek, bizitzeko gogo, azken finean.



Horma

Behartutako erbestealdian bizi den herria da sahararra, eta hedabideetan ia agertu ez bada ere, gerran da berriro ere. 2020an hautsi zuten 1991z geroztik indarrean zen su-etena. Erresistentziaren Museo Nazionalera egindako bisitan Frente Polisarioko kideak azaldu zuenez, sartu-irtenak egiten dituzte sahararrek 2.700 kilometroko *lotsaren hormatik* eurenak behar luketen lurretara. Pertsonen aurkako milioika mina ditu hormak inguruan. ■

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41




MUGARIK EZAGUTZEN EZ DUEN HARRIBITXIA

Mikel Morris eta Hiromi Yoshida
HIZKUNTZALARIAK

Txikia bere handitasunean, munduko hizkuntzen artean dagoen *rara avis*-etako bat da euskara. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan hitz egiten da hizkuntza, baina ez da euskal jatorrikoa izan behar euskara ikasteko, hitz egiteko, harekin bizitzeko, erabiltzeko eta maitatzeko. Hiromi Yoshida japoniarra eta Mikel Morris estatubatuarra dira horren adibideetako bi. Hizkuntzalariak biak, euskara ikasteko hautua egin dute biek.

Testua: **Juan Luis Romatet.** Argazkiak: **Alex Berasategi.**



Coloradon jaioa, Zarautzen bizi da Mikel Morris (Denver, Colorado, AEB, 1957). Ingeleseko akademia bat dauka kostaldeko herrian, eta euskara eta ingeleseko Morris hiztegiaren sortzailea ere bada. Hiromi Yoshidak (Yuzawa, Japonia, 1960), berriz, Japoniako bi unibertsitatetan egiten du lan linguistika eta euskara eskolak ematen. Tokion bizi da, baina urtean pare bat aldiz joan ohi da Azpeitira. Bidaia horietako bat aprobetxatuta bildu ditu GUKAk bi protagonistak Azpeitiko Basazabal jauregian, eta beraien esperientziez, eta, oro har, euskaraz aritu dira hizketan.

Nor da Hiromi Yoshida eta nor Mikel Morris?

Hiromi Yoshida: Japoniarra naiz, eta Tokion bizi naiz. Ez naiz Euskal Herrian bizi, baina urtean bitan-edo etortzen naiz—pandemia garaian ez; orduan ezin izan nuen etorri—. Orain dela urte asko, Tokion hasi nintzen euskara ikasten. Suzuko Tamura zen gure irakaslea; Euskal Herrian ere nahiko ezaguna zen Suzuko [hizkuntzalari japoniarra 2000. urtean egin zuten ohorezko euskaltzain]. Bost lagun aritu ginen haren saioak jasotzen, baina ez irakasgai

moduan; izan ere, Suzukok nahi zuelako ematen zituen euskarako klaseak, euskara ikasteko taldetxo bat sortu nahi zuelako. Gerora, euskara ikasten jarraitu nuen, baina mintzapraktika egitea eta entzumen lantzea oso zaila egiten zitzaidan Tokion. Hori dela-eta erabaki nuen Euskal Herrira etortzea. Lazkaora [Gipuzkoa] joan nintzen, hango Maizpide euskaltegira; hamar hilabetez aritu nintzen barne-tegi hartan euskara ikasten. Gero, Tokiora itzuli eta unibertsitate masterra egiteko prozesuan sartu nintzen, linguistikako departamentuan. Nire lanerako gaia euskara zen, baina ez nuen nahi euskara batua lantzea, euskalki bat hautatu nahi nuen. Tokion, kasualitatez, Azpeitiko mutil bat ezagutu nuen; laguntza eskatu nion hari, eta Azpeitiko euskararen inguruko lanketa egin nuen. Hari esker bukatu nuen masterra, eta Azpeitiko euskararen inguruan egin nuen tesia ere. Orain, bi unibertsitatetan egiten dut lan linguistika eta euskara klaseak ematen.

Mikel Morris: Nire kasua oso bitxia da. Euskal Herrira lehendabizikoz 18 urte nituela etorri nintzen, Francoren bizitzako azken urtean, 1975ean. Kasualitatez, Mendietan [Nafarroa] nengoela entzun nuen lehen aldiz euskara. "Zer da hori?", pentsatu nuen neure baitan, eta pixkanaka aztertzen hasi nintzen. AEBetara itzuli nintzen, eta han nengoela erabaki nuen Euskal Herrira bueltatzea. Zorionez, Iruñeko lagunak nituen ordurako, eta haiek Lazkaora [Gipuzkoa] joatea gomendatu zidaten; garai hartan, baina, oraindik ez zegoen martxan Maizpide barne-tegia. Beasainen [Gipuzkoa] bizi izan nintzen, eta gero, Ataungo [Gipuzkoa] baserri batean ere egon nintzen. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburuan jasota dagoen egoeraren antzekoa zen nirea, baina erromantzerik gabe. Gero, nire bizitzako proiektua izango zenarekin hasi nintzen, hiztegiarekin, alegia. Nik ez nekien hiztegi bat nola egiten zen, baina hori nork daki! 19 urte jo eta ke aritu ondoren bukatu nuen proiektua. Euskal Herritar batekin ezkondu nintzen, hiru seme-alaba ditut, Zarautzen bizi naiz eta ingelesakademia bat daukat.

Euskara lehen aldiz entzutean, zer sentipen izan zenituzten? Hizkuntza erabat arrotza izango zen zuentzako, ezta?

H. Y.: Arraroa, oso arraroa egiten zitzaidan. Ezezaguna eta ezo-hikoa zen niretzako.

M. M.: Niretzako espainiera zen, baina ezertxo ez nuen ulertzen; tutik ere ez.

Euskal kulturara hurreratzeko lehen pausoa izan al zen euskara? Edo aurretik bazenuten euskal kulturaz edo Euskal Herriaz zertzeladarik?

H. Y.: Niri hizkuntza bera interesatzen zitzaidan. Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu horretan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara. Banekien euskara izeneko hizkuntza bat existitzen zela. Nire lehen helburua euskara bera izan zen.

M. M.: Banekien euskaldunak bazirela, filmen birtatez jakinda. Bazen euskaldunak agertzen ziren film bat; buruan txapela zutela, haitzetan saltoka, indiarak hiltzen, beti irrintzika. "Zein dira hauek?", pentsatzen nuen neure artean. Bestalde, 9 urte nituela *basque* hitza aurkitu nuen entziklopedia batean, eta euskaldunak oso misterioitsuak zirela zioen. Gerora, Euskal Herrira etorri nintzen, eta *basque* horiek, euskaldunak, ikusi nituen.

Bitxia ere bada Japonian, Euskal Herriatik milaka kilometrorra, hain urruti, euskara ezagutzea, ezta?

H. Y.: Linguistikaren munduan nenbilelako izan nuen euskararen berri. Nire inguruko zen jendeak ere aukeratzen zituen hizkuntza txikiak ikasteko. Horregatik, niretzako ez da batere harrigarria hizkuntza minoritario bat aukeratzea.

Agian, euskaldunak harritzen dira euskara bezalako hizkuntza txiki bat ezaguna delako mundu mailan.

M. M.: Ez zarete konturatzen, baina euskara oso famatua da hizkuntzalarien artean. Ni ere hizkuntzalaria naiz, eta euskara oso arraroa da, harribitxia da. Bada hizkuntza bat Pakistanen, burushaski izenekoa, Gilgit-Baltistan eskualdean hitz egiten dena. Bada, inork ez daki zer jatorri duten burushaskiak eta euskarak. Zer ote dira hizkuntza horiek?

H. Y.: Euskara baino txikiagoak diren hizkuntza asko daude munduan.

Behin euskara ikasteko pausoa emanda, zer egin zitzazuen zailena?

H. Y.: Aditzen sistema ikastea ez zitzaidan hain zaila egin. Agian, gauzak buruz ikastea kostatu zitzaidan gehien.

M. M.: Hitzen ordena ikastea egiten zitzaidan zaila niri. Hiromirentzako ez da hain zaila euskarazko esaldietako hitzen ordena; izan ere, japonierazkoen antzekoa da. Baina nire kasuan, adibidez, ez da horrela: "Dendara joan nahi dut" esaldian, esaterako, ingelesaren ordenarekin alderatuta, dena alderantziz dago. Gero, gainera, gauzak pixka bat



"Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu honetan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara"

"Hizkuntza guztiak dira zailak, eta ikasterako orduan dituzun erreferentzietan dago gakoa"

"Euskararen erabilera indartzeko euskarazko edukiak izatea oso garrantzitsua da"

Hiromi Yoshida

konplikatu egiten dira. Hemen adibide batzuk: "Ez dut dendara joan nahi" edo "ikusi dudana gizona nire aita da". Pixkanaka ohitu egiten zara, baina hasieran oso zaila egin zitzaidan guztia.

H. Y.: Mikelek esan duen bezala, hitzen ordena ikastea ez da batere zaila izan niretzat. "Atzo ikusi nuen gizona" edo "hau hori baino txikiagoa da", esaterako, halaxe, ordena horretan, esaten ditugu japoniarrez ere. Ezezko esaldietan, ordea, kristoren buelta eman behar zaie euskarazko esaldiei.

M. M.: Beste arazo bat euskalkiak izan ziren niretzat. Hasieran, aditzen forma guztiak ikasi nituen: "Edo-nori gerta dakioke", "eman diezaio beste bat", "betor beste bat"... Lagunak-eta harrituta geratzen ziren zeinen ondo hitz egiten nuen entzundakoan. Kontua da nik ez nuela beste molderik ezagutzen. Liburuetan hala zela agertzen zen, eta nik errepikatu egiten nuen. Gero konturatu nintzen herriko seme-alabek ez zekitela –esan dezagun– goi mailako euskara batu hori hitz egiten. Horregatik ez nion inori ulertzen; batua ulertzen nuen, baina herriko euskalkia ez.

Zuen inguruan euskara ikasi behar zenutela esan zenutenean, zer pentsatu zuten? Naturalizat hartu al zuten erabakia?

H. Y.: Naturalizat? Ez, ez, ezta pentsatu ere. "Zertarako behar duzu? Zertarako nahi duzu euskara?", galdetu zidaten.

M. M.: "Why?" [zergatik ingelesez], galdetzen zidaten lagunek. Euskal Herrian nintzela erabaki nuen euskara ikastea, AEBetan ikastea ezinezkoa zen eta. Gaztea nintzenean ez zegoen Internetik, eta ez zen posible euskara *online* ikastea.

Biok primeran hitz egiten duzue euskaraz. Asko kostatu al zitzaizuen hizkuntza menderatzea? Zenbat denbora behar izan zenuten?

H. Y.: Hori bai dela galdera zaila. Ez dakit zenbat denbora behar izan nuen esaten. Lazkaora joan nintzenerako gramatika nahiko ondo nekien, baina hitz egiteko arazoak nituen eta entzumenarekin ere ez nintzen ondo moldatzen. Gramatika nahiko ondo nekienez, baina, bosgarren mailan-edo sartu ninduten; besteek ondo hitz egiten zuten, baina nik ez. Maiatza izango zen hasi nintzenean, eta uste dut uztaila edo abuztua izango zela hitz egitera soltatu nintzenerako. Dena den, esan behar dut ez nuela euskara hitz egiten hasteko lotsarik izan.

M. M.: Ondo gogoan daukat urtarrilean hasi nintzela euskara ikasten. Hasieran hitz solteak esaten nituen, eta zalantza asko izaten nituen, baina behin, Ataunera bidean autobusez nindoala, leherketa antzeko bat izan nuen nire barrenean, eta hizketan hasi nintzen; maiatza-edo izango zen. Egun osoan praktikatzen aritzen nintzen: ohe gainean nuen aditzen taula, eta harekin jarduten nuen. Horrela ikasi nuen euskara.

Euskara bereziki hizkuntza zaila dela esan ohi dute. Akaso, gauza bera esan daiteke munduko beste hizkuntzei buruz ere. Zer iritzi duzue?

H. Y.: Nire ustez, munduko hizkuntza guztiak dira zailak. Hizkuntza bat sistema oso konplikatu da. Denak dira zailak, eta ikasterakoan dituzun erreferentziak dira gakoa. Gaztelaniaz baldin badakizu, zuretzat oso erraza izango da italiara, frantsesa edota portugesa ikastea. Nire kasuan, baina, japoniera nondik datorren ez dakigu, eta, beraz, ez daukat beste hizkuntza bat ikasteko erreferentziarik.

M. M.: Mundu guztiak uste du espainiera oso erraza dela ikasteko. Hori gezurra da!

H. Y.: Oso zaila da. Gaztelaniaren aditz sistema oso konplikatu da.

M. M.: Nik txikitan portugesa ikasi nuen, eta horrek erraztu zidan gero espainiera ikastea. Baina portu-

gesa espainiera baino mila aldiz errazagoa zen niretzako. Euskara, berez, ez da zaila; izan ere, Hiromik esan duen bezala, hizkuntza guztiak dira zailak.

Kasu desberdina da zuetako bakoitzarena: zu, Hiromi, Tokion bizi zara; zu, Mikel, Zarautzen, eta zure egunerokoan inguruan duzu euskara.

M. M.: Ez pentsa. Akademia bat daukat, eta derri gorrez ingelesez hitz egin behar izaten dut. Nire emaztea, berriz, Iruñekoa da, eta nirekin normalean erdaraz edo ingelesez hitz egiten du. Euskaraz behar bezala hitz egiteko beharrezkoa da lagun euskaldunak edukitzea, eta batzuetan nahikoa da bost lagun egotea eta batek euskaraz ez jakitea derri gorrez espainierara jo behar izateko. Beraz, niretzat zaila da euskaraz behar bezala bizitzea, nahiz eta Zarautzen bizi naizen.

Lagun artean lehen aldiz euskaraz hitz egin zuenean harriduraz hartu al zintuzten?

M. M.: Lehen aldi hartan bai, baina ohitu dira jada. Oso ezaguna naiz Zarautzen, denek dute nire berri, herri txikia da eta.

Japonian bizita, erraza egiten al zaizu euskara maila mantentzea, Hiromi?

H. Y.: Ez zait hain zaila egiten. Euskara ikasten hasi nintzenean ez zegoen Internetik, baina orain bai. Japonian ez dut euskaraz hitz egiten, baina egunero idazten dut mezuren bat edo bi, eta irakurri ere euskaraz irakurtzen dut. Horrek asko laguntzen dit. Gainera, askotan ahozko mezuak bidaltzen ditut, eta bueltan ahozko mezuak bidaltzeko ere eskatzen diet. Arinagoa da horrela komunikatzea, eta ikasteko modu hobea da niretzat.

Zenbatetan esan dizute: "Kontxo, japoniar bat euskaraz!".

H. Y.: Hasieran, izugarritzko sorpresarekin hartzen zuen jendeak, baina orain gero eta gutxiago hartzen dira. Euskal Herrian ere, gero eta atzerritar gehiago bizi dira, asiar jatorrikoak ere bai tartean, eta haien umeak ere joaten dira ikastoletara eta haiek ere euskaraz egiten dute. Gero eta ohikoagoa bihurtu da atzerritarrek euskara hitz egitea, ez da hain harrigarria dagoeneko.

Urtean behin edo bitan etortzen zara Euskal Herrira. Zer egiten duzu bidaia horietan?

H. Y.: Lan batzuekin etortzen naiz beti. Nire buruari gai bat jartzen diot beti, eta horri buruzko lana egiten dut. Adibidez, azpeitiar batekin aritzen naiz egunero pare bat orduz; galderak egiten dizkiot



"Ohe gainean aditzen taula bat nuen, eta horrekin egoten nintzen egun osoan. Horrela ikasi nuen euskara"

"Hiztegia egiterakoan arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen"

"Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduen aldetik ere"

Mikel Morris

gauzak nola esaten diren-eta jakiteko. Euskal Herrira etorritakoan, normalean, Azpeitian egoten naiz, baina beste herri batzuetan ere izana naiz halako lanak egiten: Zarautzen, Zumaian edo Zestean, adibidez.

Morris izeneko euskara eta ingeles hiztegia da zure lanik ezagunena, Mikel. Nola ekin zenion proiektu horri?

M. M.: Garai hartan ez zegoen halako ezer ere. Euskarazko hiztegi gehienak oso txarrak ziren, nire uste apalean balio handirik ez dutenak. Ingeleseztako hitz edo esaldiak euskaraz nola esaten ziren galdezka ibili nintzen, eta Euskaltzaindiko kideekin ere hitz egin nuen; pentsa, hitz batzuk euskaraz nola esaten ziren ez zekiten haiek ere. Horregatik, arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen, eta gero haiek hiztegian sartzea. Oso zaila izan zen prozesua.

Hiztegi baten lana ez da inoiz amaitzen. Halako lanek aldiro elikatzea eskatzen dute...

M. M.: Horretan ari naiz. Baina arazoa da, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak ez duela ezer egin nahi. Hiztegi gintza, behintzat, akabo! Dena da itzultzaile automatikoa, eta itzultzaile automatikoa ona izan dadin beharrezkoak da esaldi paraleloak egotea.



Dena den, berdin zaie, eta hori oso kaltegarria da euskararentzako.

Azken datuen arabera, euskararen kale erabilerrak behera egin du gazteen artean. Gero eta euskara gutxiago entzuten da kaleetan. Kezka sortzen al dizue horrek?

H. Y.: Kezkatuta nago, baina alde linguistikotik begiratuta, prozesu naturala dela ere esan daiteke, eta oso zaila izango da hori geldiaraztea. Euskararen erabilera indartzeko oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea.

M. M.: Oso garbi daukat: axola duena edukia da. Adibidez, Netflix bezalako plataformetan ez dago euskarazko azpiztitulurik. Orain, lehen baino gehiago dago, bai, baina dagoen hori ez da nahikoa. Beti sortzen da erdarazko edukia, eta gero eta gehiago egiten da ingelesez. Gaur egungo gazteak, batzuetan, euskaraz baino hobeto moldatzen dira ingelesez. Kontzientzia kontua ere bada. Katalunian, adibidez, jo eta ke ari dira hizkuntza goratzen, baina Euskal Herrian euskara hizkuntza txikia dela pentsatzen da, eta horregatik, erdizka egiten dugu,

hau da, erdia euskaraz eta beste erdia espainieraz –ez dut *gaztelera* hitza inoiz esaten; espainieraz diot jendea pixka bat nirekin haserretzeko–. Espainieraz egin nahi badute ekoizpena, egin dezatela, baina gero ez daitezela etorri gure nortasunaz edo gure hizkuntzaz hitz egitera; izan ere, euskaraz egiteko aukerak badaude. Orain 40 urte, Euskal Herrira etorri nintzenean, oso txarra zen euskararen egoera, baina etorkizunera begira itxaropena bazegoen. Gaur egun, gazte askoren –ez guztiena– hizkera oso pobrea da. Hala ikusten dut nik, behintzat.

H. Y.: Ikastolei esker, gero eta euskal hiztun gehiago sortu dira. Kontua da jakin badakitela, baina ez dutela euskara erabiltzen. Horregatik, Mikelek esan duen bezala, oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea. Gaur egungo umeek ez dute telebistarik ikusten, baina YouTube bai, eta han euskarazko eduki oso gutxi dago. Hori dela eta, derrigorrez jo behar izaten dute gaztelarazko edukietara.

M. M.: Gero eta etorkin gehiago iristen da Euskal Herrira. Haiekin zer egin behar da? Benetan integratzen al dira? Ez. Hemen ditugunak dira baskoak eta bestetarrak. Denok gara euskaldunak, baina badirudi euskaldun izateko oraindik ere baskoa izan behar dela. Hori burutik kendu arte euskara hizkuntza etnikoa izango da, eta etnikoa den bitartean arazoak izango ditu. Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduetan aldetik ere.

Beraz, zuen ustez gazteentzako euskarazko edukia sortu behar da, eta era berean, erakundeek lanean jarraitu behar dute euskara sendotzeko. Ezin al da segurutzat jo euskara bizirik iraungo duela?

M. M.: Naziogintza da garrantzitsua, eta Euskal Herriko biztanle guzti-guztiak euskaldunak sentitzea; ez politika aldetik –politikan ez naiz sartuko–, kultura aldetik, baizik. Denok euskaldunak baldin bagara, horren gainean eraiki behar dugu euskal kultura. Ez baskoak batetik eta etorkinak bestetik; batu egin behar dugu.

Euskara oraindik ere arma politiko bezala erabiltzen dute batzuek. Gizartean, edo politikaren munduan, behintzat, normalizazio falta dagoela uste al duzue?

M. M.: Inongo zalantzarik gabe. Azken batean, dena da politika. Etsi gabe jarraitu behar da gauzak eskatzen; etsipena baldin badago, jai izango dugu



denok, beste irtenbiderik ez dago. Gaur egungo gizartea nolakoa den ikusita, beharrezkoa da denon artean kultura sendo bat eraikitzea. Baina mundura begira dagoen kultura izan behar du; ez ditu soilik jaso behar baskoen kontuak, munduko gauzak jasoko dituen kultura izan behar du. Azken batean, euskaldunak izateaz gain, gizakiak ere bagara. Hori kontuan hartu behar da, bestela jai daukagu.

Euskal Herritik kanpo jaiotakoak zarete biok, eta biok ikasi duzue euskara. Nola bultzadaiteke euskara ez dakien pertsona bat hizkuntza hori ikastera?

M. M.: Oso garbi daukat. Kanpotar bati esan da-kioke –kanpotarra izan daiteke ni bezalako norbait, anglosaxoi bat, edo izan daiteke txinatar bat, edo Valladolideko bat– euskara ikasiz gero, gutarra izango dela. Hala ez bada izango, zertarako ikasi behar du euskara? Euskara ikasi eta hemengoa ez dela esaten bazaie... Halako jarrerekin ez goaz inora. Konbentzitzeaz gain, horregatik da beharrezkoa integratzea, beharrezkoa da nazio bat egitea. Eta hori gertatzen ez den bitartean, euskara kili-kollo ibiliko da beti. Hori da nire ustea, baina agian oker nago.

Zuei zer eman dizue euskarak?

H. Y.: Niri gauza asko. Nire helburua hizkuntza bera neureganatzea zen, eta hori lortu dut nolabait. Baina, aldi berean, euskararen bitartez lagun pila bat egin ditut, eta hori altxorra da niretzako.

M. M.: Euskara hizkuntza izugarri interesgarria da, ikaragarria; oso txikia izan arren, hain da aberatsa... Oso hizkuntza berezia eta maitagarria da euskara. ■



Ikusi eksklusiban Mikel Morrisi eta Hiromi Yoshidari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Nire haurrak antsietatea du?



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Ikasturte bukaera hemen dugu, eta haurrengan nekea geroz eta nabariagoa da. Askotan urduriago daude, motibazio falta gehiago sumatzen dugu beraierengan, eta eskolako emaitzen inguruko ardurak ere azaltzen dira. Eta, nahiz eta batzuetan sintomak helduek izaten ditugun ezberdinak izan, haurrek ere antsietatea izaten dute.

Haurrengan antsietatea nola azaltzen den jakiteak asko lagun dezake etxean esku hartze goiztiar bat egiteko. Hainbat motatako sintomak daude, baina nabariak hauek izan daitezke:

Sintoma fisikoak: min ezberdinak azaltzen dira, batez ere tripako mina eta buruko mina, gauetan lo hartu ezinda ere egoten dira egun asko jarraian, eta batzuetan hitz totelka hitz egiten hastea ere gerta daiteke.

Sintoma emozionalak: jarrera erritual ezberdinak garatzen dituzte, adibidez, atea ireki

aurretik bost arte zenbatzea edo etxetik irten aurretik beti ura edatea. Beldur berriak ere azal daitezke, eta gauetan amets gaizto gehiago izaten dituzte.

Jarrera sintomak: gehiago haserretzen dira, eta negar gehiago egiten dute. Orokorrean, asko mugitzen dira eta ezinegon gehiago izaten dute. Adin berekoekin egoteko gogo gutxiago ere azal dezakete.

Zer egin dezakegu, guraso bezala, sintoma horiek azaltzen badira?

Kontuan hartu: batzuetan iruditzen zaigu kasurik egiten ez badiegu desagertu egingo direla sintomak, baina gehienetan, hori ez da horrela izaten. Sintomak zerbait erakusten du, eta erakusten den hori begiratu behar da. Haurrarekin hitz egin sintoma horiez, eta lagundu nahi diozula adierazi.

Berarekin denbora gehiago pasatu: ez utzi haurra telebista aurrean edo bakarrik jolasean denbora gehiegi. Jolastu berarekin, ekintza ezberdinak

egin, eta mugitu. Berarekin irakurri, berarekin etzan ohean lokartu behar duenean, berarekin joan oinez edo bizikletaz ibiltzera, eta horrelako momentuak hitz egiteko erabili.

Ipuinak erabili. Ipuinak tresna proposa dira haurrari laguntzeko gertatzen ari zaiona ulertzen. Batzuetan berak ez daki zehatz zer gertatzen zaion, eta ipuinek hitzak jartzen laguntzen dute.

Eguneroko zereginak errebisatu: haur batzuen agenda beldurgarria da. Eskolan ordu asko igaro ondoren, arratsaldeetan ekintza gehiago izaten dituzte. Batzuetan ez da derrigorrezkoa egunero joatea edota ikasturtea bukatzea; hori ere baloratu.

Askotan, sintoma horiek egun gutxi irauten dute, eta arreta pixka bat jartzen badiegu, pasatu egiten dira; beste batzuetan, berriz, denboran luzatu egiten dira edo berriro agertzen dira. Halakoetan, psikologo baten laguntza bilatzea da proposena. ■

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzera

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOA



UNI
EIBAR
ERMUA



F



- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

M



- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK

A



- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I



- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK
ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idezkaritza@uni.eus | @uni.eus

Kaleko pintura lehiaketa

2023 • Maiatzak 21, igandea

Zumaia Uda
KULTURA SAILA



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



Karteleta margolana:
Udane Juaristi
2022ko lehiaketako irabazlea


Oinarriak: zumaia.eus

Baiez Hamanigu!

Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Handienetik txikienera



Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 8.

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek
zentzua izan dezan.



Denbora ren dominoan



Bakoitzari berea

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



Zurekin,
gehiago.
Izan eta egin.

PUBLIZITATEA

ekin
elektronika, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola
tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 beheka
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainiki!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheka
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Irlondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

ZERK EGITEN GAITU TOKIKO HEDABIDE?



Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa.
Batzen gaituena gara.

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edo zertarako, aurretiko hitzorduak egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com · @oreka.kiropraktika

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. p. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 88 · Fax 943-86 13 45
www.ostolaza.com · e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 · 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretza, 19 · 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaira
taberna · jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



TAPAIA
taberna

Embera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izasterri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behe - Tel. 943 573 905



UKENDU
**PARABOTIKA
BELARDENDA**

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 · 943-86 09 92 · www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 · 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behe
943-14 32 78



Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 · 943-86 23 87 ZUMAIA

Eskolan

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO

OSTOLAZA

Euskararen ibilbidean, eskola faktore garrantzitsua izan da, onerako zein txarrerako: XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, euskararen ezagutza handitzeko eta biziberritzeko; aurreko mendeetan, berriz, gaztelania zabaltzeko eta errotzeko, batez ere XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran; izan ere, eskola sarea hedatzen eta sendotzen joan zen neurrian, erdara ere indartu egin zen. Lehen, udalena zen eskolen gaineko eskumena eta euskara presente egoten zen, gutxi eta gutxitan bazen ere; baina Estatuak bere gain hartu zuenean eskolen aginpidea, euskaraz ez zekiten kanpoko maisuak eta maistrak ekarri zituztenean, ordura arteko ikasgelako elebitasuna zapuztu egin zen, euskararen kaltetan, eta zenbait gertaera politikok areagotu egin zuen Estatuaren zentralismoa sendotzeko eta *euskal* izaera zuen oro ikasgelatik kanporatzeko ahalegina. Horren erakusgarri, Zumaiako alkateak eta eskola publikoko maisuak elkarri idatzitako testu batzuk ekarriko ditugu hona, umeei dotrina zer hizkuntzatan irakatsi behar zieten mintzagai.

1882an gaude. Duela sei urte amaitu zen II. Gerra Karlista, baina oraindik ere bizirik diraute arrastoek, itxi gabeko foruak deuseztatuta, karlistak edo haiekin aritu zirenak kendu edo baztertu egin zituzten irabazleek lanpostu publikoetatik, eta horixe gertatu zitzaion, baita ere, Leon Boneta maisuari.

1865ean hasi zen irakasle Boneta Zumaian, eta orduan ere ez zuen ezkutatzen bere pentsaera politikoa: kontserbadorea, katolikoa, foruzalea... Gerraren ondoren, 1876an, Aizarnazabalen hasi behar izan zuen irakasten, karlisten aldekoa izanik liberalek ez ziotelako utzi Zumaian jarraitzen, baina helegitea jarri zuen Probintziako arduradunen aurrean eta lortu zuen bueltatzea 1879an, udal agintariak aurka bazeuzkan ere.

Itzuli zenerako, hezkuntzan ere aldaketa nabarmenak gertatuak ziren; 1876ko

**LEHEN, UDALENA ZEN
ESKOLEN GAINEKO
ESKUMENA ETA
EUSKARA PRESENTE
EGOTEN ZEN**

Konstituzioa indarrean jarri zenean, gaztelania hizkuntza bakar izendatu zuten eta hezkuntzaren gaia Estatuaren mende geratu zen, lehen herriek eta probintziek hezkuntzan zeuzkaten eskumenak galdu egin zituzten, eta Estatuak hizkuntza eta historia espainola bultzatzeko erabaki irmoa hartua zuen; horrekin batera, Estatuak ahalegin berezia egin zuen haur guztiak eskolaratzeko, ikastea nahitaezkoa zen 6-9 urteren artean, eta Estatuak udal askoren ezinbesteko laguntza izan zuen ahalegin horretan, Junta de Instrucción Pública izeneko bidez; horren erakusle, 1876an Eusebio Gurrutxaga alkateak zumaiarrei egindako jakinarazpena:

"1º Desde el día 2 de Noviembre próximo serán recogidos todos los niños y niñas, que durante las horas de la escuela que serán de 08:30 a 11:30 por la mañana y de 13:30 a 16:30 por la tarde, se encuentren por las calles y sitios públicos.

2º Los padres de los niños recogidos pagarán por su negligencia una peseta por la primera vez y se aumentará el castigo si no lo corrijen" ¹.

Horrela bermatu nahi zuten haur guztiak eskolara joatea eta gaztelaniaz ikastea. Garai

hartan, 1880ko bueltan, eskola hauek zeuden Zumaian: mutilena (80-90 haurrekin) eta neskena (50-60 haurrekin), biak ere publikoak, herrigunean; Maria eta Jose ikastetxea, pribatua (mojen ardurapean), 1871n sortu berria (90-100 neskarekin); eta Oikiako eskola, publikoa (25-30 neska-mutilekin); ume txiki-txikientzat (parbuloentzat), berriz, eskola partikularrak zeuden, arautu gabeak; azkenik, helduen eskola ere bazegoen, gauetan, eta 20 lagun inguru zebiltzan ikasten.

1879an itzuli zen Boneta Zumaiara, baina begitan hartuta zeukaten agintariek, eta ez zioten ezer barkatzen; irakurtzeko modukoak dira garai hartako agintarien iritziak eta balorazioak, herriko haurren hezkuntza maila kaskarra zela eta; adibidez, hau, 1880koa: "(...) la instrucción en la escuela de niños se halla en un deplorable atraso segun se ha visto en la visita última jirada el día de hoy, si bien el maestro alega que la asistencia de los discípulos deja mucho que desera" ².

Baina balorazioak balorazio, etor gaitezen harira, eta maisuaren eta alkatearen arteko gutunetara. 1882-01-24 da, astearte, eta Boneta irakasleak

ofizioa idatzi dio Nicolas Gurrutxaga alkateari:

"Esta mañana al presentarse los niños en la Escuela se han alborotado manifestando que **no quieren aprender Doctrina en castellano, por haber llamado el Sr. Vicario que se haga en vascuence**; ahora bien, teniendo yo **órdenes terminantes de que por ningún concepto enseñe nada en vascuence**, ¿qué hago en este conflicto? A V.S., como mi Autoridad inmediata, acudo suplicándole con el debido respeto, que tenga a bien disponer lo que debo hacer en el presente jaso" ³.

Hitz gutxitan asko adierazten du maisuak: klaseak erdaraz ematen zituela eta euskaraz ezer ere ez emateko berariazko agindu zorrotza zeukala, baina bikarioak agindu ziela umeei dotrina euskaraz ikasteko. Artxiboko paperetan begiratuta, badaude eskolan euskarak lekua bazuela adierazten duten frogak: 1869an, faktura batean, "He recibido de Don León


ARTXIBOETAN BADAUDE ESKOLAN EUSKARAK LEKUA BAZUELA ADIERAZTEN DUTEN FROGAK

Boneta Maestro de Escuela de esta villa, veintiocho reales y treinta y dos maravedís, por el importe de 12 catecismos de bascuence" ⁴; halaber, 1880an, eskolako baliabideen zerrendan: "Inventario de los enseres y libros que existen en la Escuela Pública de niños de la villa de Zumaya (...): 1 Diccionario manual de vascuence y castellano por Astigarraga en buen uso, y dos en mediano uso. 14 *Iracurtzaren asierac edo lenasteac*, en buen uso" ⁵.

Bonetaren eskaera zela eta, Nicolas Gurrutxaga alkateak egun berean erantzun zion maisuari, beste idatzi baten bidez, eta lasaitzeko agindu: "ante todo lo que procede es que se haga respetar de los niños haciendo prevalecer su autoridad sobre ellos" ⁶. Alegia, gogor egiteko eta aginpidea errespetarazteko. Baina maisua seguru asko ez zen egongo lasai, eta segituan erantzun zion, urduri zegoen seinale: "creo muy necesaria su presencia en la Escuela para que pueda ofrecer los efectos que en la misma se indioa" ⁷.

Egun hartan zerbait egingo zuten, baina ez nahikoa, nonbait; izan ere, astebate geroago, 1882-01-30ean, astelehenean, berriz idatzi zion Bonetak alkateari:





"Hoy han vuelto a alborotar los niños de la Escuela y en mayores proporciones que en la vez anterior, a consecuencia de haber manifestado uno de ellos que le ha ordenado el Sr. Párroco me diga **no haga uso de la Doctrina, sino en vascuence, habiéndose negado varios de ellos a estudiarla en castellano, aunque tampoco la he permitido que la efectúen en vascuence**: algunas madres se han presentado también con la misma cantinela; por consiguiente, urge poner fin a este estado de cosas, por lo que suplico a V.S. tenga a bien dar una vuelta a esta Escuela" ⁸.

Beraz, arazoak bere horretan jarraitzen zuen edo areagotu egin zen igandearen ondoren. Parrokoak kaskagor jarraitzen zuen bere eskaerarekin, eta oraingoan, gainera, umeak ez ezik, gurasoak ere sartu zituen tartean, egoera gehiago behartzeko.

Handik hiru egunetara, 1882-02-02an, ostegunean,

maisuk idatzi bat bidali zion alkateari: "Nota de los niños que alborotaron, desobedeciendo las órdenes de la superioridad" ⁹, eta barruan 16 laguneko izen zerrenda, izenburu honekin: "Nota de los niños que no quisieron sujetarse a aprender la Doctrina en Castellano"; azken izenaren ondoan, gainera, oharra idatzi zuen maisuak: "Mariano Ibarra, el que, después de salir definitivamente de la Escuela, tiró una piedra a la mima". A zer amorrua, mutil harena, harrikada batean!

Astebete geroago, Gurrutxaga alkateak idatzia bidali zien probintziako agintariei:

"Debo al propio tiempo dar cuenta a V.E. que el día 28 del mes último tuvo que acudir esta Junta local a la escuela de niños, porque estos incitados por el Sr. Párroco a que no aprendieran la doctrina en castellano, desobedecieron al maestro armando un verdadero alboroto, viéndose precisado a castigar severamente a los

principales culpables y a amonestar a los padres de todos los niños que faltaron al respeto debido al maestro y a los buenos preceptos que se deben guardar en la escuela, **acordando además el jueves a la tarde hubiera en adelante clase dedicándolo ésta a aprender la doctrina en vascuence**" ¹⁰.

Beraz, eskaerak eta protestak ez ziren izan alferrikakoak, eta lortu zuten, azkenean, ostegun arratsaldeetan dotrina euskaraz irakastea eskolan. ■

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa, 76. kaxa, 1876-10-28.

² ZUA, 76. Kaxa, 1880-01-12.

³ ZUA, 76. kaxa, 1882-01-24.

⁴ ZUA, 76. kaxa, 1869-12-22.

⁵ ZUA, 76. kaxa, 1880-06-30.

⁶ ZUA, 76. kaxa, 1882-01-24.

⁷ Ibidem.

⁸ ZUA, 76. kaxa, 1882-01-30.

⁹ ZUA, 76. kaxa, 1882-02-02.

¹⁰ ZUA, 76. kaxa, 1882-02-07.



**Maite duzun
Zumaia**

ehbildu

**EGINGO
DUGU.**

**Duintasunez
zaintzea
errealitatea
izan dadin.**

*Zaintza duintzeko
ahalegin publikoa.*



Skyline

ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO MARTIN

"... Eguzkia pixkanaka jaisten zen zeruertzean, eta zerua kolore gorriz, arrosaz eta laranjaz tindatzen zuen ilunabar ederrean.

Itsasadarreko eraikinak kolore berroz margotutako zeruaren kontra silueta ilunetan profilatzen ziren. Forma arkitektonikoak dotoreziaz nabarmentzen ziren, zeruarekin alderatuz zirrara izugarria sortuz..."

Gaurkotasuneko nobela batetik ateratako paragrafoak?

Ez... Zumaiaiko ilunabar baten nire deskripzioa da. ■■■





Jainko txikiak



HILTZAILE BATEN AITORMENA

Egilea: Joseph Roth (itzultzailea: Matias Mujika)

Argitaratzailea: Igela

Argitaratze urtea: 2003

Orrialdeak: 198

Generoa: Narratiba



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Hiltzaile baten

aitormena Joseph Rothek 1936an idatzitako eleberria dugu. Roth (Brody, 1894 – Paris, 1939), idazle austriarra, familia judutar batean sortu zen, eta XX. mendearen hasierako Europako idazlerik handienetako bat izan zen.

Protagonistak gau batean kontatzen duen istorioa bada ere, urte askotako gertakizunak jasotzen ditu, tsarren Errusiatik hasi eta boltxebikeen iraultza eta Bigarren Mundu Gerrara arte. Protagonista nagusia Errusiako erbesteratua da, Golubtxik. Berak bere bizitzaren historia kontatuko die pertsona batzuei Parisko restaurant batean, gau batean.

Golubtxikek basozain baten seme gisara bizi izan du bere

haurtzaroa Volynian (Ukrainan). Baina egun batean Krapotkin printze errusiarrak bere amari bisita egingo dio, eta horrela jakingo du printze horren sasikoa dela. Horrekin hasiko da kontakizun zirraragarria. Narrazioan bata bestearen atzetik aurkituko ditugu protagonistak duen irrika obsesiboa printzeak bere semetzat onartu dezan; tsarren polizia politikoarekin, Ojranarekin, duen lotura; polizia operazio batean Moskun ezagutuko duen modelo batekiko duen pasioitsu eta garaiezina, eta, azkenik, protagonistak aurkari duen Krapotkin printzearen seme legitimoarekiko handituz dihoakion herra, gorrotoa. Salaketak, traizioak, ezinikusiak, gorrotoak, pertsona aberetzea, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka estua, alkoholaren aterpea...

Askorentzat autorearen eleberri errusiarra da. Izan ere, pertsonaia nagusia errusiarra da, eta pertsonaien psikologia Errusiako nobelagintzaren pertsonaien kolorekoa da: zitalkeria, ezinikusia, herra,

nork bere errua aitortu, garbitu eta ezabatu nahia; hori baino ez da eta aitortenaren xedea. Narrazioak Errusiako literaturak berezkoak dituen tormentu jasanezina, larritasun existentziala eta morala erakusten ditu, atmosfera infernutar batez girotua.

Lehen pertsonan mintzo zaigun narratzaile batek –egilea bera akaso–, Parisko taberna errusiar batean kokatzen gaitu, Taribari tabernan. Bertako bezero bati *Gure hiltzailea* deitzen diote, eta aipatutako narratzaileak ezizenaren zergatia galdetzen diolarik, bezero horrek erantzuten dio urte batzuk aurrerago gizon bat eta emakume bat hil zituela, edo hala uste zuela behintzat, eta, nahi izanez gero, hantxe bertan kontatuko duela gertatutakoa. Horra nola bilakatzen zaigun, beraz, tabernako bezero hura, lehenengo pertsona hau ere, protagonista, istorio nagusiaren kontalari. Bidenabar, amaierara arte adi eta jakin-minez mantenduko gaituen enigma aurreratzen digu, eta eleberri beltzera garamatza nabarmen. ■■■



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



HEZKUNTZA ESKAINNTZA 2023/24

Hazi, hezi, **Mekan** ikasi!



AURREMATRIKULA
Maiatzak 8-26ra.



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka-elgoibar.net



MEKA ALBITZURI ERAIKINA
Albizuri pasagunea, 24
20570 EL GOIBAR
Gipuzkoa

MEKA EZENARRIO ERAIKINA
Arenagoterra kalea, 2
20570 EL GOIBAR
Gipuzkoa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA **BERRIA!**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAINZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTISOAK

- **IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURTASUNA** **BERRIA!**
(GOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOA)
- **IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA** **BERRIA!**
(ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOA)



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43